

Botiken eta eguzki-iragazkien arrastoak arrainetan

Haizea Ziarrusta Intxaurtza EHUko ikertzaileak frogatu duenez, amitriptilina antidepresiboa, ziproflofaxin antibiotikoa eta oxibentzona ultramore-iragazkia arrainetan metatzen dira. Kutsatzaileok arrainen plasman, burmuinean eta gibelean albo-ondorioak eragiten dituztela ohartarazi du.

Bilboko estuarioan badaude kutsatzaile horiek, eta arrainei nola eragiten dieten aztertu dute Ziarrustak eta taldekideek. Zehazki, Plentziako Itsas Estazioan esposizio-esperimentuak egin dituzte urraturuekin, ebaluatzeko amitriptilinarenean, ziproflofaxinarenean eta oxibentzonarenean biometaketa nolakoa den eta ehunetan nola banatzen diren. "Horrez gainera, kutsatzaile horien biotransformazioa aztertu eta degradazio-produktuak karakterizatu ditugu, eta, azkenik, kutsatzaile horiek arrainetan eragin ditzaketan maila molekularreko aldaketak ikertu ditugu», azaldu du Ziarrustak.




Urraburuetan ikertu dute nola metatzen diren kutsatzaileak.
ARG. Roberto Pillon/CC-BY-3.0.

Haren esanean, oraindik asko dago ikertzeko; besteak beste, arrainetan metatzen diren kutsatzaileak gizakiengana heltzeko arriskua ote dagoen. ●

Zientzian genero-berdintasuna lortzeko zailtasunak identifikatu dituzte

Zergatik irauten du emakume eta gizon zientzialarien arteko aldeak, eragileak ondo ikertuta eta dokumentatuta badaude, eta gaitzespen zabala badute? Galdera horri erantzuten saiatu dira Australia, Herbehereak eta Estatu Batuetako ikertzaileak.



ARG.: Artxibokoa.

Arrazoi nagusia hau dela ondorioztatu dute: arazoak dimentsio asko ditu (norbanakoa, familia, lantokia eta gizartea), eta horrek zailtzen du neurriak eraginkorrak izatea, dimentsio baterako onuragarria dena kaltegarria izan daitekeelako beste baterako.

Adibidez, emakumeak lider izatera bultzatzen duten neurriek kontziliaziorako laguntzei uko egitea eragin dezakete. Edo Matematikak nagusi diren arloetan (Fisika, Ingeniaritzak) emakumeen ehunekoa areagotzeko kanpainak, emakumeak gehiengo diren arloak gutxiestea.

Egileen ustez, ikuspegi holistikotik heldu behar zaio gaiari, kontuan hartuta erakundeen kultura eta zaintzaren gutxiespena. Horrekin lotuta, salatzen dute ez dela ikertu ea zaintza-lanak onurarik ekartzen ote dion karrera zientifikoari. Haien irudiz, ikertzaileen egozentrismoaren aurkako antidoto egokia izan daiteke zaintzan esperientzia izatea. ●